



Jaiari hasiera eman gabe, Mielari agur esan diote

Sanmielak bertan behera utzi dituzte, pandemia garaian ospatzea ezinezko bilakatu delako / 2-7


AIURRI, 2019

Hezkuntza alorreko elkarrizketak

Maite Petrikorena Andoaingo Ondarreta ikastetxeko zuzendaria eta Agustin Urretabizkaia Urrietako Magale ikastetxeko zuzendaria / 8-9



Egape dantza taldeko kideek ikuskizuna eskaini zuten Urrietako Udal pilotalekuan / 7



Julen Gabirondo Pentatloiko finalean ariko da. ETB1k zuzenean eskainiko du, larunbatean / 12



Andoaingo ondarearen jardunaldietan parte hartzen ari ziren ikusleek ezusteko bisitaldia jaso zuten / 16

B O N U - K A N P A I N A

EROSI URNIETAN

Ordaindu 20 euro eta gastatu 30

HARTU HITZORDUA BONUAK EROSTEKO:

Webgunea: www.urnieta.eus | APP: mugikorraren bitartez | 688 720 742 telefonora **deituta**





Marizulo aldean jarraituko du Mielak. AIURRI

Datorren urtera arte, Miela!

Azken asteotan Koronabirusak izan duen garapena ikusita, aurreikusi zitekeen egoerara iritsi dira urnietarrak: Herriko jairik gabeko urtea izango da 2020a. Sanmielen historian ez ohiko egoera biziko da

Erredakzioa URNIETA

Historikoa hitzaren erabilera gehiegizkoa izatera iritsi da, alor askotan. Gertaera sozial edo politiko askotan aipatzen da historikoa hitza, baina kasu bakan batzuetan besterik ez du benetakoa esanahia hartzen. Eta Sanmielak bertan behera uztea kasu horietakoa da. Historikoa baita Sanmielik gabeko urtea bizitzea. Iragan mendean izan dira gertaera puntualak, duela mende bateko pandemiaren kasuan adibidez. Orduko hartan, inguruko herrietatik Urnietako jaie-

tara ez gerturatzeko deia luzatu zen. 1936ko ospakizunak ere ez ziren samurrenak izan. Altxamendu frankistaren ondorioz, indarrez boterea hartu nahi zuten tropak Urnietara iritsi ziren. Eta Sanmielak egoera tristean igaro. Hainbat lagun atxilotu zituzten, tartean ordezkari politikoak, eta gutxira fusilatu zituzten. Aurtengoan ez da jairik izango Urnietan. Izan dadila koxka txiki bat jaien historia luzean. Datorren urteko iraila hobe izango den itxaropena ez dadila oharkabean galdu.



Adierazpen bana ordezkariak duten alderdien eskutik



MIKEL PAGOLA
ALKATEA, EAJ-PNV

"Denok batera, Urnieta aurrera!"

Sanmielak ospatzeko asteburua izan behar zuen orainoak, kalean egotekoa, gure lagun eta bizilagunekin elkartzekoa eta herriko elkarteek Udalarekin batera antolaturiko ekintzez gozatzekoa. Covid 19-ak baldintzaturiko egoerak ordea, ezinezko egiten du, momentu honetan gure osasuna lehenetsi behar dugulako eta jende pilaketak ekidin behar ditugulako birusa gehiago ez hedatzeko.

Dena den, eta fisikoki ezin bada ere, elkartuta egoteko unea da, eta ez zatitzekoa edo bakoitza bere kabuz ibiltzekoa. Gutariko bakoitzaren jarrerak funtsezkoak dira multzoaren ongizaterako. Erantzukizunetz eta arduraz jokatu behar dugu. Guztion arteko elkartzunarekin eta jarrera amankomunarekin lortuko dugu birusa gainditzea eta aurrera egitea. Hurrengo urteetan izango dugu Urnietako kaleak kolorez, umorez eta giro onez betetzeko eta jaiez gozatzeko aukera. Denok batera, Urnieta aurrera!



AINARA DE MIGUEL
EH BILDUKO BOZERAMAILEA

"Babes osoa eman diogu elkarteekin adostutakoari"

Behingoagatik elkarteekin bildu eta eztabaidatu ondoren hartu ditu erabakiak gobernu taldeak. Babes osoa eman diogu elkarteekin adostutakoari. Herriko ikastola ia baliabiderik gabe abiatu da, esfortzu ikaragarria eginez gure txikiengizateaz zainduko. Anbulatorioan ere ia baliabiderik gabe ari dira lanean, eguneko zentruaren pare. Txalotzeko denen lana. Langabezia, emakumearen egoera larriagotzea, hezkuntzari babes eza, babes ofizialeko alokairu etxeak martxan jarri gabe, merkatariekin kontaktzen ez duen bono kanpaina abian,...

Miela kuttuna, aurten ez dugu zer ospaturik. Elkar zainduko unea da, elkar zaindu eta begirada kritikoz ardurak eskatzekoa. Datorren urtean, doble ospatuko ditugu. Orain ere, urnietarrok, aurrera egingo dugu! Laister izango dira Txanbolinen soinuak dantzarien koloreak astinduz, buruhandiak, txikiengizateak, gauak bakarrik jakingo dituen sekretuak... Gora Urnieta! Gora Mikel deunaren jaiak! Gora Miela!!



HERME GONZALEZ
PSE-EEKO BOZERAMAILEA

"Erantzukizuna eskatu nahi diegu herritarrei"

San Miguel jaiak bertan behera uzteko erabakia zaila izan da, oso zaila, tristura handiarekin hartutakoa. Urnietarren osasuna lehenetsi da erabakia hartzeko garaian. Urnieta ez baitago pandemiatik salbu.

Alderdi sozialistako kideok animoak eta itxaropen mezua helarazi nahi dizkiegu Urnietako herrikide guztiei. Animo asko ospakizunik egingo ez den egun hauek igarotzeko garaian. Tradizio handiko hitzorduak baitira, herriaren ikuspegitik begiratuta. Datorren urtean elkartzeko itxaropena zabaldu nahiko genuke, ea gure herriko jaiak bete-betean ospatzeko aukera izaten dugun. Azkenik gure babesa eta besarkada helarazi nahi diegu Koronabirusagatik gaixorik dauden herrikideei, eta baita euren senitartekoei ere.

Erantzukizun handiz jokatzeko eskatu nahi diegu urnietar guztiei. Animo eta Gora San Miguel!

1918, 1934 eta 1936 urteetako gertaera historikoak

Sanmielei begira atzera begira jarriz gero, oharzten gara XX. mendean zehar zenbait urtetan gora behera handiak jasan izan zituztela, ospakizuna zuzenean edo zeharka baldintzatu zutenak.

Urnietako Udal Artxibora jotzea izango lizateke zentzudunena, informazio bila. Baina asmo horrekin doan herritarrek ez du arrastorik topatuko, 40ko hamarkadan atzeragoko agiririk ez behintzat, ez Sanmielei, ezta herriko kultur mugimenduen berririk jakinaraziko ligukeenik ere. Ikusten denez, Udaletxeko agintari edo langile axolagaberen batek artxiboko hainbat agiri zahar desegin egin zituen 40ko hamarkada hartan, herriko kultura eta bizitza sozialarekin zerikusia zutenak gehienbat, muzin eginez artxibo baten eginkizun nagusiari eta bertan biltzen diren agirien balio historikoari.

Izango dira une katramilatsu gehiago XX mendean zehar, baina behinik behin, hiru epe edo gertakizun historiko aipa genitzake San Mielak hankaz goratu zituztenak.

1918ko Pandemia garaia. Mundu mailako pandemia irailean hasi zen zabalitzen, ustekabean. Gutxi iraun zuen, baina giza hondamen galanta eragin zuen. Larritasunaren dimentsioa eskaini diezagukete, esate batera, 3.000 biztanle zituen Andoain (Urnietaren paretsu) eta 1.000 zituen Zizurkil erreferentziatza hartuta azken aldiaren egin diren ikerketek. Horien arabera, pandemiak 41 lagun hil zituen Andoainean, eta 29 Zizurkil. Pandemiak urrian izan zuen bere agerraldirik bortitzena, baina jada irailaren azken egunetan ezagutu ziren lehen heriotzak. Horrela, Gipuzkoako Gobernadore Zibila herrialdeko alkate guztiei 1918ko irailaren 22an eman zien pandemiaren berri; San Mielak hasi bezperatan, esan daiteke. Nahiz eta ez eduki agiririk ziurtatzeko, Sanmielak bertan behar geratu zirela antzeman daiteke. Gertakizunen kronologikoei erreparatzea besterik ez dago: hilaren 21ean Espainiar Gobernuako Ministroen kontseiluak mugak ixtea erabaki zuen; irailaren 27an Gobernu zibilak oharra zabaldu zien udalei, jakinaraziz jende asko biltzen zituzten ekitaldietan kutsatzeko arrisku bizia egon zitekeela; irailaren 28an birusak Andoainean lehen biktima eraman zuen aurretik, eta egun berean bertako Udalak bandoa zabaldu zuen herritarrei eskatuz Urnietako edo Irurako Sanmieletara ez agertzeko, bertan jende pilaketak gerta zitezkeela eta.

1934ko Sanmielak. Urte hartako udan Euskal Herriko EAJko alkate eta zinegotziek dimensioa aurkeztu zuten. Tartean, Urnietakoak. Madrilgo gobernuaren erabaki batek –ardoarekin lotutako zerga– udal autonomiaren kontra egiten zuelakoan, erabaki irmo hori hartu zuten. Horrela, eskuineko zinegotzi karlistek udal agintea hartu zuten. Sanmielak iritsi zirenean, Urnietako EAJko herriko batzordeak jaietako boikotatu egitea eskatu zien herrikideei, udal agintari berriek zilegitasun demokratikorik ez zutelako argudiatuta.

1936ko Kolpe militarra. Kolpearen eta ondorengo gertakizunen harira, logikak agintzen digu pentsatzera urte hartan ere ez zirela ospatu. Izan ere, Nafarroatik zetozen altxatu militarrek irailaren 11n okupatu zuten Urnieta. Herriko agintari frankistek irailaren 17an egin zuten lehen udal batzaraldia, udal gobernu berria osatuz. Agintari berriek beharbada ospakizunetarako eduki zezaketen gogorik, baina herrian eta herritarren artean festa girorik ez zuten topatuko. Atxiloketak, hilketak, militarrek inguruko parajeetan borrokaldean... Erailtzeko lagun zerranda osatzeko denbora hartu zuten behintzat; eta horrela, irailaren 29a, San Miel egunean, urnietarrentzat urteko egunik handienean, Meza Nagusiaren ostean, iraganen Urnietako alkate eta epaile izandako Rafael Barkaiztegi eliza aurrean atxilotu eta Andoainera eraman zuten; bertako kanposantuen horman fusilatuta zuten.

Osasun arloko ikasketa zentroa



943 33 64 91

Erratzu ind. 81, URNIETA

www.institutocesa.com

2020-2021
ikasturteko
matrikulazioa
zabalik!



Miela eta Urnietako neska-mutilak lasai egon daitezke, egun hauetan ez bada aurrera iritsiko baita jaiak egiteko sasoia. AIURRI

Hitzordu berezia urnietarrentzat

Azken urteotan jaiak garapen handia izan du Urnietan. Adin tarte guztiei begira lanean jarrita zeuden hainbat gizarte eragile, ahalik eta jairik osatuenak izan zitezten. Pandemiak ez dezala aurreko urteetako inurri lan hori estali. Beharko da etorkizunean

Erredakzioa URNIETA

Kultur, kirol eta gizarte mailako eragile askoren lanari esker, Urnietako jaietan egitarau osatua aurkeztea lortu da. Azken urteotan jaiak une gozoa bizi zuela ezin uka. Gainera, eguraldiak laguntzen zuen. Giro eguzkitsuan ospatu ziren hitzordu ugari, herriko festazaleen gozamenerako. Ez baita ahaztu behar iraila hilabeterik oparoena izaten dela Urnietako gizarte bizitzan. Etxeberri plazako bizilagunek antolatzen zituzten jaiak errotuz ari ziren, eta horrez gain Sanmielen

atarian geroz eta hitzordu gehiago ospatzen ziren: Egape dantza taldearen ikuskizuna, Super H elkartearen ospakizuna, Poxta Zahar gazte koadrilek antolatuturiko bertso saioa, Santa Kruz elkarteak antolatuturiko plater tiraketa, Extremadurako dantza saioak... Ikusi behar pandemiaren garapena zein den. Energiarekin esan ohi den bezala, Urnietako gizarte ekimen hori ez dadila galdu. Eraldatu baizik. Jaiak ez dira ospatuko, baina gizarte bizitzarako gogoia ez da hain erraz apalduko.

CERAMICAS NOGALES S.L.
URNIETA

- Sukaldeko altzariak
- Aluminio aroztegia
- Egur aroztegia
- Elektrizitatea
- Igeltsua
- Hargintza
- Iturgintza
- Pintura

AURRERA URNIETA

Errekalde, 10
20130 Urnieta
Tel./Faxa: 943 009 284
Tel.: 943 550 624
ceramicasnogales@ceramicasnogales.com

ITXASPE

gora Urnieta! gora Sanmielak!

FRUTATEGIA, IZOZKIAK eta GOZOKIAK
Zelaialde, 2 • URNIETA TEL.: 943 009 427

Urnietako jaien oparotasunaren lagin bat, irudi bidez



Herri bazkaria, bakailao lehiaketa, paella jatea, patata tortila lehiaketa, ardo dastaketa, Kantazaun kalejira..., azken urteotan hainbat hitzordu egonkortzen ari ziren. AIURRI



Jaioberriei zapia jartzeko ohitura berri samarra da, Sanmieletan. AIURRI



Patata tortila lehiaketarekin batera mozorrotzeko joera zegoen, hainbat koadrilen artean. AIURRI



belar eta eko denda
Elikagai, kosmetika ekologiko eta terapia natural alternatiboen txokoa

- Naturopata
- Akupuntorea
- Nutrizionista
- Makrobiotika
- Masajista
- Reiki
- Bach loreak
- Intolerantzi testa...



Idiazabal kalea,
32 bis behea
URNIETA
943 333 841



HEZKUNTZA GELDI EZ DADIN,
ZAIN DEZAGUN GURE BURUA!

magale
IKASTETXEA





Jaiarekin harremana duten hainbat gizarte eta kultur eragile San Juan plazan, musukoa duen Miela alboan dutela. AIURRI

Erantzukizunez jokatzeko deialdia

Udalak zabaldu zuen oharrean jairik ez antolatzea kolpe gogorra zela aitortu zuen. Era berean, dei zehatza zabaldu zien festazaleei: "Erantzukizuna eskatzen dugu. Hartutako erabakia errespetatzea espero dugu, eta ospakizun alternatiborik ez egitea"

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Egoera ez da samurra, eta pandemia garaian festa bigarren mailako lehentasun bilakatu da. Udalak kezka agertu du birusak duen hedapenarekin eta horrexegatik erantzukizunez jokatzeko deia luzatu du: "Ez da inork nahi duen egoera, baina jakin behar dugu urte desberdin baten aurrean gaudela

eta egoera guztiz ezohikoa bizi zuten ari garela. Berriro ere erantzukizuna eskatzen dugu.

"ERABAKIA ERRESPETATZEA ETA OSPAKIZUN ALTERNATIBORIK EZ EGITEA ESPERO DUGU"

Ildo horretan, hartutako erabakia errespetatzea espero dugu, eta ospakizun alternatiborik ez

"LEHENTASUNA ORAIN BIRUSAK LEKURIK EZ IRABAZTEA ETA HEDATZEN EZ JARRAITZEA DA"

egitea. Ospakizun horiek arrisku larrian jarriko lukete guztion osasuna, horrelako ekintzek eragiten baitituzte kutsatze gehien. Une honetan, birusak lekuri ez irabaztea eta hedatzen ez jarraitzea da lehentasuna". Leiho bat zabalik utzi nahi diote itxaropenari, esan nahi baita, etorkizunari. Pandemia gogorra alde batera uzten den sasoirako utzi beharko dira ospakizunak. Horixe da gizarte osoaren esperantza, eta baita Urnietako Udalarena ere: "Ziur gaude guztion lankidetzarekin aurrera egingo dugula, eta datozen urteetan gure herriko jaiez gozatzeko aukera izango dugula. Jai giroan eta errespetuz ospatzen dira Urnietan San Miguel jaiak, eta urtetik urtera gero eta ospe handiagoa hartzen ari dira, udalerriko elkarteek egiten duten etengabeko lanari esker.

Jai batzordearen adierazpena

Oharraren laburpena, honakoa: "Osasun eta segurtasun neurriak lehenetsiz, Udalak ez du ohiko jai ospakizunik antolatuko. Jai Batzordean baloratu dugu elkarteek ere beraien ekitaldiak garatzeko baldintzarik ez dutela. Urnietarrantzat Sanmielak egun garrantzitsuak izan ohi dira kalean elkartu, herriko elkarteek ekitaldietan parte hartu eta kulturaz gozatzeko. Aurten, kutsatzeko arriskuaren ondorioz, gure desio asko ezingo ditugu gauzatu eta ohitura batzuk aldatu beharko ditugu: jaien hutsunea nabaritu dugu, baina gure arteko harremanei, herri nortasunari eta kulturaren garapenari bide ematen jarraitu nahi dugu.

Urnietako elkarteek eta kulturgileen lana bizirik dagoela nabarmendu nahi dugu, pertsona askoren urte osoko lanari esker: herri baten izaeran ezinbesteko jarduerak dira kantua, dantza, musika, gastronomia, haur, gazte eta adinekoen aisialdia eta dinamizazioa, antzerkia, kirola, ... gizartea aberasten dutenak eta osasuntsu mantentzen gaituztenak dira. Hurrengo urtera arte, Miela!"

Arduraz jokatu!
Guk horrela egiten dugu

Aurrera Urnietan!

Protokolo guztiak betetzen ditugu

Erreserbak: 943 33 73 57 edo info@hotelk10.com

Gaztelo
GOZOTEGI ARTISAU
BONBONERIA

Gora Sanmielak!

Errekalde kalea, 14 - 20.130 URNIETA - 943 008 406
Zarautz ibilbidea, 76 - 20.018 DONOSTIA - 943 226 584




"Almanaka" ikuskizuna eskaini zuen Egape dantza taldeak Udal pilotalekuan, aurreko ostiralean. AIURRI

Kultur jardueren haria ez dadila eten



Etorriz hurbilean taularatu nahi duten ikuskizun berriaren atal batzuk ikusgai daude Aiurri.eus gunean, bideoen atalean. AIURRI



Saioa Urbistondo eta Karmele Lekuona dantzariak. AIURRI

"Txaloka atera garenean hunkitu egin gara"

Egape Dantza Taldeak eskaini zuen "Almanaka" aurrerapen saioak ikusmira handia sortu zuen. Jende ugari bildu zen kultur ekitaldiaz gozateko; halaber, esan beharra dago, segurtasun neurriak zorrotz bete zirela, hala nola eskuetarako gela, distantziak, edota musukoen erabilera beste batzuen artean. Saio ikusgarria eskaini zuten; ikusleek ikuskizunaren amaieran txalo zaparraden artean eskertu zituzten dantzariak. Frontotik ateratzeko segurtasuna bermatzeko, taldea atera ziren bertako arduradunen esanetan.

Pozik zaudete eskaini duzuen emanaldiarekin?

Bai, oso gustura dantzatu dugu, espero genuena baino hobeto irten da guztia jakinda zein egoera bizi dugun.

Gaurkoa jendaurreko proba bat izan da?

Arraroa izan da. Egungo egoerarekin ez genekien zein harrera edukiko zuen dantza emanaldiak jendaurrean. Une oro distantzia mantendu behar denez, musukoekin zaudenez eta bizi dugun bestelako egoera dela eta, zalantzak genituen, baina guztia bikain irten da. Gehitu beharra dago, aspaldi ez genuela dantzatzeko, beraz, jendearengandik horrelako harrera edukitzea oso pozgarria da.

Kultur ekitaldiak jendaurrean egitea garrantzitsua da?

Kultur ekitaldiek berebiziko garrantzia dute. Horrelako ikuskizunekin, bizi dugun egoera une batez ahaztu dezakegu. Egia da maskarekin eta distantziarekin ikusi behar direla saioak, baina horrelako saioek jendea poztzen dutela pentsatzen dugu. Gaur ikusi da kulturak aurrera egin behar duela, eta, une oro, segurtasuna bermatu daitekela ezbeharrak ekiditeko.

Zuentzako berezia izan da emanaldi hau?

Hasieran txaloka hasi garenean, emozionatu egin gara; poztasuna besterik ez genuen. Hilabeteak igaro dira normaltasunez dantzatu genuenetik. Gainera, hau guztia aurrerago egingo dugun ikuskizunaren aurrerapena izango da.



SANHIELETAN
ZAINDU GAITEZEN.
AURTENEZ DA
TOKATZEN

MUAZPI

Harategia

- Bertako haragia
- Jaki prestatuak
- Delikatessen
- Ardotegia

Gora Urnieta!

Errekalde, 14. Urnieta
943 008 304 / 665 73 78 71
muazpi@gmail.com



Maite Petrikorena Kale Nagusiko eraikinean duen bulegoan. AIURRI

"Ikasturte hasieran alde emozionalari heldu diogu"

MAITE PETRIKORENA ANDOAINGO ONDARRETA IKASTETXEKO ZUZENDARIA

Ikastetxe publikoko zuzendariak gogotsu ikusten du lantaldea, eta txalotzekoa iruditzen zaio ikasleen portaera. Hezkuntza sailarekiko jokabide kritikoa agertu du

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Udan lanean aritu eta gero, ikasturteari ekitea behar modukoa zen zuentzat? Alegia, martxan jartzea? "Jar gaitezen martxan", horixe zen gure desioa. Argi izanik urduritasuna eta zalantzak izango genituela. Ikasleak zoragarriak direla esan dezaket. Primeran egokitu dira. Egoerari dagokionez, oraintxe ari naiz kontingentzia plana berritzen, zeren eta papearak den-dena eusten du. Baina errealitatea erabat desberdina da.

Antolaketa aldetik, beraz, lan handia.

Izugarria. Baina ikasleen jarra oso ona da, itzultzeko gogo biziz zeudela argi dago. Eskola behar beharrezkoa dute sozializatzeko.

Guraso batzuren artean beldurra nagusi da. Gutxi batzuk ez dute haurra eskolara eramaten.

Guraso horiei esan behar zaie sei urtetik gorako haurren kasuan eskolan hastea derrigorrezkoa dela. Beharra dute etortzeko, sozializatzeko...

Beldur hori kendu behar diegu guraso horiei, protokoloa eta segurtasun neurriak betetzen ditugulako.

Zer moduzkoa izan zen lehen eguna, aurkezpenarena?

Lehen egunean aurkezpenak egin genituen, hori bakarrik. Aurtengoan bereziki baliagarria izan zen sartu-irteerako protokoloa aktibatzeak. Egindakoaz ikasteko oso baliagarria izan zen.

Eta irakasleen aldetik zer nolakoa izaten ari da hasiera?

Lanean hasteko gogo handia antzeman dut. Baina baita urduritasuna ere, hain handia baita ziurgabetasuna! Protokolo ugari jaso ditugu paperean idatzita, baina gero harremanetan jartzeko garaian Hezkuntza sailaren erantzuna penagarria izan da. Ez dugu erantzunik jaso.

Ez duzue harreman zuzenik izan?

Ekainaren amaieran kontingentzia plana edo protokoloa jaso eta horren arabera antolaketa egin genuen. Pasa genuen uztaila, deika eta deika... Norbaitekin hitz egitea lortzen genuenean "hori ez da nire ardura, deitu diozu halakoari..." bezalakoak entzun behar izaten genuen. Bulegoan erotu beharrean ibili ginen. Oso bakarrik sentitzen gara.

Beste ikastetxeetako zuzendariari egindako elkarrizketetan adierazten ari dira baliabide guzti-guztiak erabiltzen ari direla. Zuek ere antzeko zabilzate?

Une honetan Donostiako irakasle bat dago konfinatuta bere etxean, bere alabaren gela itxi dutelako. Etxean egon behar du alabak 10 urte dituelako, baina ofizialki PCRa egin arte ez dago bajaran. Orduan ez daukagu ordezkorik. Eta gure artean antolatzen gara, daukagun lantaldearekin. Horren harira, lankide batek aipatu dit Gasteizen zuzendaritza talde batek planto egin duela, bulegoa itxi eta ikasgeletara itzuli direla. Gure kasuan maiz gertatzen da hori. Ordezkapenik gabe, zuzendaritza lanetan gaudenok gelara joan behar izaten dugu eskola ematera. Zuzendari lanetan aritzeko denborarik gabe gaude, askotan.

Eta bapatean hiruzpalau irakaslek baja hartu beharko balute, zer?

Ezinezkoa litzateke protokoloa betetzea. Mugan gaude, gure plantilla oso zehaztuta dago.

Igande gaua, eta lanean hasteko bezperan zein izaten da zure pentsamendua?

Ikasturte honetan egunez egun gabilta. Asteburua pasa dut eskolako telefonoa eskutan, irakasle horren kasua bideratzen ari nintzelako. Horrez gain, beste irakasle baten kasua genuen baina dagoenako alabak PCR proban negatiboa eman duela adierazi digu, eta lanean berriro. Ziurgabetasuna muturrekoa da. **Zein da gurasoengandik jasotzen duzuen kezka nagusia?**

Lehenengo egunetan galdetzen zizuten ea segurtasun neurriak

mantendu genitzakeen, gela barruan distantzia bermatu ote zitekeen...

Amara Berri sistema darabilgu eta horren arabera arlo bakoitzeko gela bat erabiltzen genuen. Egoera honetan den-dena hankaz gora jarri behar izan dugu. Ez dugu gure izaeraren funtsa galdu nahi, baina egokitu behar izan dugu.

Hasiera honetan alde emozionalari heldu diogu. Eta, bestalde, hizkuntza aipatu beharko genuke. Batez ere ahozko hizkuntza, zeren gure ikasle askok eskolan dute euskararekiko harremana bakarra. Eta sei hilabete hauek hizkuntzaren aldetik kaltegarriak izan dira.

Hasierara itzuliz, ikasleak kontzientziatuta daudela adierazi duzu...

Euren eginkizuna ondo betetzen dute. Eskolara sartzen dira, jolastokira. Temperatura hartzen diegu denei, eta dena ondo badago gelara sartzen dira. Gela guztietan dago xaboia eta ura. Talde bakoitzak bere komuna du. Momentuz dena ondo doa.

Ahal den heinean bete beharko da, baina egoera honetan bigarren mailan geratzen al da kurrikulum akademikoa?

Kurrikuluma bete egin behar dugu. Hori da beste eskaera bat. Eta hor gaude, momentuz ez da aldatu, baina egokitu bai. Martxoan utzi genuena berriro hartu eta lanean jarri gara.

Nola ikusten duzu etorkizuna, epe erdira?

Hirugarren astean sartu gara, eta behatzak gurutzatzen ditugu kasurik agertu ez dadin ikasleen artean. Orain arte ezin izan dugu baliabide faltagatik martxan jarri, Hezkuntzak ez digulako erantzun. Zorionez, Andoaingo Udalak laguntza handia eman digu.

Zertan lagundu dizue Andoaingo Udalak?

Bigarren jangela jarri ahal izateko mahaiak utzi dizkigu. Beste bilera batzuetarako eta nahi ditugun beste gauzetarako lokalak gure esku jarri dituzte.

Espazio falta arazoa al da zuentzat? Gela guztiak erabiltzen ari gara. Eta zorionez jolastokia estalita daukagu.

Familiei begira, zein mezu luzatuko zenieke?

Izan dezatela konfiantza gudan. Ondo egiten ari gara, ikasleen erantzuna zoragarria izaten ari da eta... beti aurrera! Egoera hau ere pasako da.



Agustin Urretabizkaia Magale ikastetxeko zuzendaria. AIURRI

"Ez dakigu zenbat denbora iraungo dugun tentsio honekin"

AGUSTIN URRETABIZKAIA MAGALE IKASTETXEKO ZUZENDARIA

Urnietako ikastetxeko langileek hainbat neurri hartu dituzte ikasleen eta irakasleen segurtasuna bermatu eta ahal den heinean normaltasunari eusteko

Mikel Arberas URNIETA

Zein aurreikuspen zenuten ikasturtearen hasierari begira?

Ikasturte honetarako genituen aurreikuspenak, orain ditugunak baino hobetoak ziren. Uztailearen hasieran ikastetxeko segurtasuna bermatze aldera prestaketa lanetan aritu ginen; jangela eta liburutegia egokitu, eta gune berriak diseinatu genituen, hau da, talde handiak espazio handietan sartzeko saiatu ginen. Hasiera batean pentsatu genuen, gune zabalak baliatuz gero, ikas-

leak musukorik gabe egon ahal izango zirela. Hauxe zen gure planteamendua, baina abuztuaren egoera okertu egin zen. Beraz, buruan genuena guztiz aldatu zen.

Zein izan da lehen egun hauetako sentsazioa?

Ona izan da. Sarrerak eta irteerak modu mailakatuaren egitea apur bat kostatzen zaigu, baina ongi moldatzen ari gara. Antolakuntza aldetik apur bat eromena izaten ari da, esaterako, jolas garaietan, guneen banake-

tan etab. Halaber, irakasleak oso konprometituta ikusten ditut, izan ere, lan handia eskatzen du egoera berriaren antolakuntzak. Beraz, egoera zaila den arren, sentsazio baikorra dugu. Hori bai, ez dakigu zenbat denbora iraungo dugun tentsio eta lan karga honekin, baina behintzat ondo hasi dugu ikasturte berria.

Erronka handia izaten ari da?

Erronka izugarria da. Kurtso hasierak beti izan dira zailak, hasieran lan karga handia dugu

guztia martxan jartzeko. Aipatu izan dut, ikastetxearen makinaria guztia mugimenduan jarri beharra dagoela. Aurtengo ikasturteari pandemiari dagokion guztia gehitu beharra dago, baita arlo askotan dagoen ezjakintasuna.

Zein neurri hartu dituzte?

Asko. Ordutegia zabaldu dugu, ikasleek sarrera mailakatuak egin ahal izateko lehenago hasten dira sartzeko eta beranduago ateratzen. Gune berriak egokitu ditugu, esaterako, zenbait espazio ikasgela bihurtu ditugu, eta seinale berriak ipini ditugu. Antolakuntza aldetik, lehen bi jolasgarai egiten ziren, orain bost. Ordutegiak ere egokitu ditugu. Antolakuntza aldetik oso konplexua izaten ari da.

Gurasoen, ikasleen eta irakasleen artean beldurra edo ziurgabetasuna sumatu duzu?

Ez dut ikara sumatzen, behintzat, ikasleen artean; hauek gaztetxoak dira eta oso lasai ikusten ditugu, lasaiegi kasu batzuetan. Ez dakit jakitun diren bizi dugun egoeraz eta erronkaz. Irakasleak ere bare ikusten ditut, baina oso arduratsu jokatzeko ari dira burutu beharreko eginkizunekin eta neurriekin. Beste alde batek, gurasoak urduriago sumatzen ditut, noizbehinka neurriei buruz galdezka etortzen dira eta deiak jasotzen ditugu.

Koronabirus kasurik edukiz gero, zein da ezarri duzuen protokoloa?

Ikasleen artean ez dugu kasurik eduki, baina irakasleen artean positiboren bat egon da. Jakin bezain pronto martxan jarri dugu protokoloa eta hartzen ari garen neurri zorrotz guztiei esker ikasleak ez ditugu konfinatu behar izan. Hori bai, ikasle eta irakasle batzuk etxera bidali ditugu positibo eman duen norbaitekin kontaktuan egon

direla medio. Egoera horri irribide bat ematen saiatu gara, eta egonaldian zeuden irakasleek etxetik lanean jarraitzeko aukera eduki dute.

Ikastetxeek babes nahikoa eduki dute Hezkuntza Sailaren aldetik?

Beti iruditu zaigu babes gutxi daukagula, eta egia da. Egoera batzuetan ez dakigu nola jokatu, iruditzen zaigu izugarritzko zama dugula gainean. Gainera, ikastetxean hartu beharreko neurriak oso zorrotzak dira, eta, agian, beharrezkoak dira bai, baina pentsatzen dut inguruan eta kalean aipatutako neurriak ez direla guztiz betetzen. Horrekin guztiarekin zera esan nahi dut, ikastetxeei asko eskatzen zaiela eta kanpora irtetearen exijentzia horiek asko murrizten direla. Beharbada, gainetik dauden hezkuntza saileko arduradunek, ikuskariek eta langileek bizitzen ari garen antzerako zama edukiko dute, eta, beraz, gauza asko ez dituzte argi izango.

Ez zenuten pasa den astearteko greba deialdiarekin bat egin, zergatik?

Aukera pertsonala da, langile bakoitzaren esku dago eta ikastetxean langileek erabaki zuten kasu honetan grebarekin bat ez egitea. Nik uste dut, jakitun zirela kurtsoa hasi besterik ez dela egin, erronka handia daukagula aurretik eta, agian, ez zela memento aproposena greba egiteko. Esanak esan, honakoa nire iritzia da, eta bakoitzak berea izango du.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Guztioi eragiten digun egoera da. Ikasleek erronka handia dute aurretik, izan ere prest egon behar dute ikasgela konfinatzen dute nerako edota, muturreko kasuan, martxoan jasan genuen konfinamendurako. Pandemia garaian arduratsu jokatu behar dute.



POSTONTZIA

OROITUZ, ANDOAINEN ANDOAIN

Eugenio Ariztimuñori erantzuna

Aiurri astekariko 661. zenbakian Eugenio Ariztimuñok idatzitako iritzi artikuluari erantzuteko asmoz, Oroituz Andoainen elkarteak zenbait gogoeta egin nahi ditu.

Lehenengo eta behin, poza agertu nahi du Ariztimuñok bere familiaren gora beherak ikertu izanagatik, eta horrela, 36ko altxamendu militarren ondorioak sufritu zituzten andoaindarren historiaren zati bat argitara jarri izanagatik. Diktadurak bortxa lehenbizi, eta demokraziak 1978ko hitzarmenaren eskutik ezkutarazi diguten geure historiaren zatitxo bat jarri digu eskutan, eta eskertzekoa da hori.

Bidebatez, frankismoaren biktimen atalarekin lotuta, herrikideak animatzen ditugu euren inguruko historiako iker dituzaten, eta nahi izanez gero, edozelako datu Oroituz elkarteari jakinarazi diezaioeten.

Lehenengo astean argitaratutako artikulua harira joanda, Oroituz elkartearen eta *Ahozko historia: oroimenean lokartutako historia* liburua ditu kritikagai, horien zenbait datu eta ekimen. Erantzun aurretik, uste dugu komeni dela gogoratzea elkartearen sorrera eta liburua zein testuingurutan gertatu ziren.

XXI. mende hasieran, Estatu espainiarreko zenbait lekuetan (Zaldibia, Bierzo...)

frankismoaren biktimen gorpuak azaltzeak gizartearen halako inpaktu soziala eragin zuten eratu zen Oroituz elkarteak. 1978ko trantsizio prozesua gutxienez zintotasun batekin aztertuz gero, ohartuko baikara prozesu hura gidatu zutenek (diktadurako mandatariak, ejertzitako, poliziak, enpresari handiak, kazetariak, elizaren jerarkia...) amnesia eta isiltasuna hitzartu zutela diktadurak 40 urtez giza eskubideen arloan eragindako bortxaketen inguruan.

Aipatutako inposizioaren eragin zuzenez, demokraziaren lehen hamarkadetan Andoaingo, Euskal Herriko edo Estatu espainiarreko gizarteak apenas jakin izan zuten diktadurak zenbateko mina eragin zuen. Andoainera etorrira, ezjakintasuna izan da nagusi urte eta urtetan, demokrazian bizi arren. Biktima zuzenen familiarrek kenduta, herritarrok orohar, ez genekien zeintzuk izan ziren erailak, desagertuak, presoak, torturatuak, langile batailoiak behartuak, exilioan hildakoak edo han bizitzera kondenatuak, ile mozketak jasandako emakumeak...

Gabezia historiko injustu hori modurik apalenean erantzun nahian sortu ziren herriz herri mugimendu memorialistak, Oroituz taldea tartean. Eta egia esanda, gai tabu baten antzerako batekin egin genuen topo hasieratik, ofizialtasunak hamarkadetan ezarritakoa; horrela, administrazio publikoetan apenas zegoen ezer ikertuta, gutxiago biktimen zerrenda ofizialik, eta artxibo askok frankismoko errepresioari buruzko agiriak sutara botata zeuzkaten (Martin Villaren esku luzea...) edo trabak jartzen zituzten ikertzeko (Andoaingo Udal Artxiboa salbuespenetakoa dela esan dezakegu)...

Era horretan, oraindik bizirik geratzen ziren biktimen edo senideen lekukotza pertsonalak izan genituen -eta ditugu-, informazio iturritik aberatsenak.

Biktima desberdinen zentsu bat (ez definitiboa, baina hurbil daitekeena) osatu, eta horien inguruko informazioa kaleratzea, frankismoko biktimen inguruko kontzientzia sozialean eragitea eta eurei demokraziak ukatutako eskubideak (Egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatze bermea) aldarrikatzea izan zen asmoa. Guzti hori erlojuaren kontrako

lantzat hartu genuen, batetik urjentziazkoa zelako diktaduran zein demokrazian gertatutako injustizia bikoitza modu batera edo bestera argitan jartzea, eta bestetik, biktimen artean oraindik bizirik zegoen belaunaldiak merezi zuelako inposatutako iluntasun historikotik atera eta aitormen publikoa jaso zezan (omenaldi ekitaldien, mahai inguruen eta abarren bidez).

Egitasmo horren baitan, milaka eta milaka testigantza, agiri, argazki... joan ginen jasotzen (eta segitzen dugu jasotzen). Jakin bagenekien errepresio frankistaren kapitulu hori liburu formatuan argitaratzerako orduan, zuzenekoak ez zirenak ere joan zitezkeela, nahigabe izanda ere. Eta onartu genuen arrisku hori, jakinik funtsezko informazioa behintzat, argitara jarriko genuela.

2006an argitaratu zen 646 orrialdeko liburu bikoitza bi hizkuntzetan, eta eurekin etorri dira gainerako ekitaldi publikoak (omenaldiak, mahai inguruak, pelikula proiektzioak...). Azken ia 15 urteei begira jarritz gero, umiltasunez baino harro, esan dazakegu guztiek ere beren funtzio soziala bete dutela.

2006az geroztik Andoaingo errepresioari buruzko informazioa biltzen jarraitu dugu, esan bezala. Eta ohartu gara zenbait datu oker geneuzkela. Horrenbestez, komenigarria litzateke, etorkizunean, bildutako datu berriekin eta zuzenketekin edizio aktualizatu bat argitaratzea. Zalantzarik ez dagoena da, goiz ala berandu, bildutako informazio guztia esku publikoetan amaitu behar duela.

2006AN LIBURUA ARGITARATU ETA GERO INFORMAZIOA BILTZEN JARRAITU DUGU

Eugenio Ariztimuñoren artikulua harira, ulertzen dugu hiru kritika egiten dizkiela Xabier Lasaren liburuari eta Oroituz taldearen jardunari. Goazen erantzunekin, puntuz puntu:

- 1.- Dioenez, Alfredo Amas Egibar ez zuten Donostian lurperatu, Andoainen baizik. Eta arrazoi du. Lehen aipatu dugun datu oker horietako bat da. Eta esan bezala, etorkizunean liburuaren edizio aktualizatuan sartu beharrekia izango da, beste zenbaitekin batera.
- 2.- Baita ere, zera dio, Alfredo Amas ez zela miliziano edo gudaria izan, baizik eta langile behartua, berezko ondoez bategatik hiltzeko zoritxarra izan zuena; ez frontean, baizik eta atzealdeko lanetan, eta eskatzen da liburutik kanpo uzteko eta baita ere kentzeko Miranda pasealekuko paneletik, frontean hildako errepublikarren zerrendatik. Uste dugu auzitan jarri ezin den oinarritzko printzipio bat ahazten duela: 1936ko uztailearen 18an zilegitasun demokratikoa zeukan sistema politikoa errepublikanoa zegoen indarrean, nahiz eta sakoneko arazoak eduki (langileen lan baldintzak, nekazal erreforma, estaturik gabeko nazioak, Elizaren eta ahaltsuenen pribilegioak...). Uztailearen 18an, falangismoak, karlismoak, ejertzitaren zati batek, Elizaren jerarkiak... talde gaizkile bat osatu eta kolpe militarra eragin zuten,

BIKTIMA MODURA HARTZEN DITUGU ZUZENEAN EDO ZEHARKA HIL ZIREN PERTSONAK

odola isuriz diktadura ezartzeko asmoz. II. Errepublikak zilegitasun osoa zeukan eraso biolento horri erantzuteko, eta halaxe egin zuen, besteak beste, herriz herri Defentsa Batzordeak eratu, eta sistema demokratiko batean eskubideak ez ezik betebeharrak ere bazituzten herritarrek mobilizatu. Eta horrexegatik, Andoain, Donostia eta gainerako herritarrei agente errepublikanoaren esanetara jartzea zegokien une ezin larriago hartan, are gehiago mobilizatu izateko adinean egonik. Bada, Andoaingo zein Donostiako Batzorde Defentsak herritarrek erreklutatu zituzten, indarrez nahiz borondatez erreklutatu ere. Ondorioz, Errepublikaren ejerzitoko kide bilakatu ziren errekrutatuko herritar guztiak, eta hainbat funtzio bete behar izan zituzten (infanteria, logistika, garraiolariak, sukaldaritza, lubaki-egileak...).

3.- Hirugarren kritika gisa, dio Alfredo Amas ez zela frankismoaren biktima izan, ez zelako frontean hil, ez zutelako erail eta ez zutelako desagerrarazi. Zilegitasuna da, eta beharrezkoa, biktimen eta sufrimenduen katalogazio edo mailaketa. Baina printzipio gisa iruditzen zaigu frankismoaren biktimaren atalean derrigor sartu behar direla frankisten kolpe odoltsuaren eraginez, zuzenki ala zeharka, hil zirenak: hormaren kontra jarrita erail zituztenetik hasi, eta, behartutako exilioan egoera penagarriaren eraginez (gosea, baldintza higienikoak, gaixotasunak...) hildako zibilak bitarte sartzen diren gizaki guztiak.



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Tourreko notak... eta beste

Tourra bukatu da, Tourra sakratua da, vive le Tour!

Ikusi eta bizitakoaren bilduma egiten saiatuko naiz leihotxo honetan. Aurrena, notak, xehe-xehe, azalpen laburrekin, eta ondoren beste hainbat ñabardura.

10 Pogaçar: Bi itzuli korritu ditu: hirugarren Vueltan, garaile Tourrean, sei etapa bietan, mendia Tourrean eta gazte onena bietan. Astelehenean 22 urte egin zituen. Ikusgarria.

9 Jumbo Vista: Dena kontrolpean eduki dute. Gehiegi. Izarrak morroi lanean... baina Tourrak ihes egin die.

8 Sunweb: Talde onena, hiru garaipen eta estrategia aparta. Hirschirekin bat, eta Andersenekin beste bi.

7 Porte: Lehen podiuma Tourrean bere argia

itzaltzen hasi denean. 35 urte. Merezitakoa.

6 Landa: Laugarren. Sendo bukatu du. Top 10eko hautagai fidagarria da, baina podiuma urrun samar izan du, eta maillot horia ezinezko.

5 Roglic: Azken egunean kale, baina fenomeno baten aurka. Kostako zaio jaikitzen.

4 Lopez eta Astana: Porte urruntzeko estrategian parte ez hartzea erabaki zuten, eta podiuma joan zaie horren erruz.

3 Quintana / Pinot / Bardet / Bernal / Aru: Ez dute neurrik eman, eta izarren soldata jasotzen dute.

2 ASO, Tourreko antolatzailea: Ibilbideak erlojupeko bat behar du lehen erdian, atzerapena pilatzen dutenek erasotzeko beharra

izan dezaten. Etapa asko zozoak eta aspergarriak izan dira.

1 Valverde: Top 10a nahi zuen. Ez du egin, eta ez da azaldu. Bukaera tristea. Agian bere azken Tourra izango da.

0 Jumbo taldeko kide batzuen harropuzkeria: Martin, Van Aert, Kuss... Indartsuago zarenean ere lankideak errespetatu behar dira.

Eta orain ñabardurak. Mikel Landa protagonista, nola ez. Landismoa Euskal Herriko eta haragoko bazterretara barreiatu da Murgiakoaren jarrera erasokorraren babesean, eta haiei kontra egiteak purrustada dezente sortzeko arriskua du. Ni ez naiz anti landista. Berriro esango dut. Ez naiz anti landista, ikaragarri gozatzen

dut Landak bizikleta helduleku azpitik hartu eta egurrean hasten denean maldan gora. Nork ez? Baina irin guztiak ez dira zuri. Auzitan jarri dut Landa ez dela podium ziklista itzuli handietan, eta datuak eman hori argitze aldera. 13 itzuli handietan podium bakarra egin duela, argudio sendoena. Hori, 2015eko Giroan, duela bost urte.

Hiru asteko probetan erregularra izateak ez baitu nahi esan Landa podium ziklista denik. Ez baita. Falta zaio koska bat, eta batez ere Tourrean. Arazoa txirrindulariak berak Tourrean zeukan helburua podiuma eta akaso maillot horia zirela saldu zuela da. Eta behin eta berriz, lau haizetara. Atzo txio zale batek: "Eta zer esatea nahi duk ba? Top 10a egin nahi

duela? Anbizio handikoa izan beharko dik ba". Anbizio handikoa edo errealista, hortxe koska. Landista aitortu batek esandakoa, plaza honetara: "Landa beti kale egiten duen txirrindulari hori da, baina inoiz dezezpionatzen ez duena". Bikain esana! Eta azken ñabardura. Erasotzaile peto sona duen ziklistak eraso bakarra jo du Tourrean. Bat. Bestelakoan eutsi.

Zalantza bat, bukatzeko. Ez ote da Landa ausarta, erasotzailea itzaltzen ari itzuli handietan podiuma lortzeko egoskorkeriagatik?

LANDA EZ OTE DA ITZALTZEN ARI ITZULI HANDIETAN PODIUMA LORTZEKO EGOSKORKERIAGATIK?

GORA ETA BEHERA



Pintada iraingarria 1936ko kolpe militarren biktimen aldeko panelean

"Oroituz, Andoainen"en ekimenez, urteak dira Miranda pasealekuan biktimen aldeko panela jarrita dagoela. Bertan ageri dira hainbat eta hainbat herrikideen argazkiak eta izen-abizenak. Duela egun gutxi ezezagun batzuk pintada iraingarria egin zuten bertan. Gerrako galtzaileak gogoan "Subcampeon 1939" esaldia irakur daiteke.



AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Eteze ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnieta).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ
ALIATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.



Urrizak eskarmentu handiagoa du. Faborittoa da, finalari begira. UTS



Endika gazteagoa da, eta txapela lortzeko dena ematera irtengo da. UTS

Bi buru eta txapel bakarra

Buruz buruko Kutxabank txapelketako finalera merito osoz iritsi dira Urriza eta Endika erremontista nafarrak. Txapelaren bila aterako dira biak, sari preziatua bakarrarentzat izango dela jakitun. Galarretako finalaren atarian ikusmin handia nabari da

Mikel Arberas ANDOAIN

Larunbat arratsaldeko finalaren atarian, hauexek bi protagonista nagusien adierazpenak. Biak ere gogotsu daudela antzeman daiteke. Partida gogorra aurrikusten dute. Biak ala biak, urte osoan txapelketa honi begira prestakuntza lanetan aritu dira. Zaletu asko hurbilduko da, gainera, Galarretara.

ENDIKA URRUTIA AZPIROZ

- Saldias, Nafarroa. 30 urte.
- Debuta: Euskal Jai Berri.
- Debutaren urtea: 2009/07/20.
- Posizioa: Atzelaria.

Txapelketa lehiatua handia izaten ari da?

Egia esan txapelketako partidak gogorak izaten ari dira, eta ezustekoak jaso ditugu; esaterako, denontzat Juanenea finalaurretara iristea ustekabe han-

dia izan da. Honekin esan nahi dudana da atzetik datozenak maila izugarria erakusten ari direla.

Nola sentitu zinen horrelako final garrantzitsurako txartela lortu zenuenean?

Finalera iristea oso pozgarria izan da, izan ere, urteetan honen bila aritu naiz eta memento txarrak igaro izan ditut; finalaurrekoetara iristean asko kostatzen zitzaidan aurrerapausua ematea. Dena dela, aurten posible izan da eta nik uste dut txapelketa txukuna egin dudala.

"FISIKOARI GARRANTZIA EMAN DIOT, URRIZARI ALDEA ATERATZEKO"

ENDIKA URRUTIA, FINALISTA

Zein da daukazun arma hobereana finalari begira?

Urrizari gainditzeko arma asko beharko ditut, baina uste dut horretarako tresnak ditudala. Nire partida egiten badut eta Urrizari jokotik kanpo utziz gero aukerak edukiko ditut. Nire armarik hobereana sarea dela esango nuke.

Gogor entrenatzen ari zara?

Lesio batetik nator, orkatila bihurritu nuen, eta ez dut denbora asko eduki entrenamendu gogorak egiteko. Hala ere, entrenatzen aritu naiz, kanpoaldean fisikoa lantzen eta jokotutako partiduak ere entrenamendutzat jo daitezke. Fisikoari garrantzia eman diot, Urrizari alde ateratzeko.

Zer egiten duzu finala baino lehenagoko orduetan?

Final aurreko orduak normaltasunez hartu behar dira, ez

diozu buruari eragin behar. Gainera, larunbat arratsaldean lana nuen eta lagun batek aldatu zidan ordua, beraz, goizean lanera joango naiz eta, ondoren, partidurako prestatuko naiz.

Irailaren 26an finala jokatu duzu, zein da zure aurreikuspena partidari begira?

Nik uste dut partida oso gogorra izango dela, Urrizaren aurka jokotutako partida guztietan aurre egiten saiatu naiz, baina berak lortzen du garaipena. Esandakoa, partida zaila izango da eta txapela etxera eraman nahiez gero nire maila onena erakutsi beharko dut.

JAVIER URRIZA TORRES

- Iruñea, Nafarroa. 38 urte.
- Debuta: Euskal Jai Berri.
- Debutaren urtea: 2007/01/27.
- Posizioa: Aurrelaria.

Txapelketan lehia handia izaten ari da?

Gogorra izaten ari da. Buruz buruko txapelketa oso exijentea da, distantzia handiak egin behar dira lasterketa eta frontoiko gune guztietan egon behar gara. Horrez gain, txapelketa honek garrantzia handia du eta, beraz,

"TXAPELA ETXERA ERAMATEKO LAN HANDIA EGIN BEHARKO DUT"

JAVIER URRIZA, FINALISTA

tentsio puntu hori beti edukitzen dugu. Ez hori bakarrik, urtetik urtera, parte hartzaileek maila handiagoa dute.

Nola sentitu zinen horrelako final garrantzitsurako txartela lortu zenuenean?

Poztasuna eta lasaitasuna sentitu nuen. Urte guztian zehar prestakuntza lanetan egoten gara horrelako txapelketetan maila hobereana erakusteko eta finalera ailegatzeko. Finalera iristean, urtean zehar egindako lanak merezi izan duela konturatzeko zara.

Zein da daukazun arma hobereana finalari begira?

Armarik onena urteetan zehar lortutako esperientzia dela esango nuke; buruarekin eta lasaitasunez jokatzeko aukera ematen baituzu. Maila teknikoan, esango nuke, defentsa eta punpa lasterra direla nire arma eraginkorrenak.

Gogor entrenatzen ari zara?

Bai, noski. Azken finean, urte osoan zehar aritzen gara fisiko ki eta teknikoki entrenatzen, baina egia da azken bi hilabeteetan, txapelketa honetan maila onena erakusteko, gehiago entrenatzen aritu naizela.

Zer egiten duzu finala baino lehenagoko orduetan?

Partiduak dituan egunetan lo gehiago egiten saiatzen naiz, partidura deskantsatuta joateko. Ohituratzat paseatzea gustuko dut, hankak luzatu eta norgehiagoka baino lau ordu lehenago bazkaldu ahal izateko. Presarik gabe joaten naiz frontoira, beroketarako denbora nahikoa edukitzeko.

Irailaren 26an finala jokatu duzu, zein da zure aurreikuspena partidari begira?

Partida oso gogorra izango da. Endikak txapelketa bikaina burutu du eta errekurtsio asko dituen pilotaria da. Txapela etxera eramateko lan handia egin beharko dut eta nire mailarik onena erakutsi. Bukaera arte borrokatuko dut larunbateko finalean.

Finala ikusteko hamar sarrera, Aiurriren eskutik

Finala zuzenean ikusi nahi? Aiurriren hamar sarrera zozketa-tuko ditu. Parte hartzeko moduak: Emaila idatzi (urnieta@aiurri.eus), edo whatsapp erabili (619 16 35 37).

Euskal Pentatloia-aren finala, larunbat gauean

Julen Gabirondo urnietarrak prest dauzka indarrak Azpeitiako zezen plazan jokatu den Euskal Pentatloi txapelketaren finalerako. ETB1n zuzenean emango dute saioa, larunbat honetan gaueko 22:00etatik aurrera

Xabier Lasa URNIETA

Julen Gabirondok maila handiko kirolariak izango ditu lehia-kide: Xabier Zaldúa, Xabier Orbegozo Arria V.a, Kepa Peñagarikano, Iñaki Errazkin eta Julen Kañamates. ETB1n zuzenean ikusteko aukera izango da.

Egundoko ikusmina eragin du finalak, eta sarrera guztiak jada salduta daude. Irailaren 5ean jokatu zen kanporatze saioko bost probak gogortu egin dituzte, finalerako. Era horretan, hona zertan neurtu beharko dituzten indarrak: 100 kiloko harria 25 aldiz jaso, giza proban 400 kiloko harriarekin bi plaza, aizkoran hiru kanaerdiko enbor ebaki, 50 kiloko bi txingarekin sei plaza, eta, lasterka hiru kilometro plazari bueltaka.

Julen Gabirondok ezusteko pozgarria eman zuen irailaren 5ean jokatu den saioan, bigarren geratu baitzen hamabost kirolarien artean. Bere berezkoak ez ziren probatan jendaurrean lehe-



Julen Gabirondo 2018ko Xoxokako jaietako desafioan. AIURRI

nengo aldiz jardutea egokitu zitzaion arren, kirolari kompletoa dela erakutsi zuen. Eta argi samar utzi zuen finala irabazteko hautagaietako izan daitekeela.

Egundoko ilusioa eragiten dio larunbateko desafioak; itxura ona eskaini nahiko luke Azpeitiako zezen plazan, daukan guttia emanez. Zuhurtziaz jokatu nahi du, nolana ere. "Errespetua eragiten dit larunbateko finalak, luzatu eta gogortu egin baitituzte aurreko saioko bost probak. Aurreko proba hari begira etxean egindako saioak eta horietan hartutako denborak kontuan hartuta, inondik ere ez zitzaidan buruan sartzen bigarren gera nintekeenik. Gauzak horrela, oraingoan ere alde aurreko irudipenekin joka genezake nahi adina, baina gero zezen plazan lanean hasi eta gauzak beste era batera irten litezke".

Aitortu duenez, harri jasotzeak eragiten dio zalantzarik handiena, berriro ere. "Beldur pixka bat ematen dit, aurrekoan ere urduri ekin nion... Saiatuko naiz 25 altxaldiak egiteaz gain, lan horretan indarrak ez gehiegi ahultzen, gero beste probekin txukun segi ahal izateko".

"BELDUR PIXKA BAT EMATEN DIT HARRIA JASOTZEKO PROBAK. AURREKOAN ERE URDURI EGIN NION"

Finala ETB1n, zuzenean

Eguna: Irailak 26, larunbata.

Emisioa: ETB1. 22:00.

Finalistak: Xabier Zaldúa, Xabier Orbegozo Arria V.a, Kepa Peñagarikano, Iñaki Errazkin, Julen Kañamates, eta, Julen Gabirondo.

Bost probak:

- 100 kiloko harria 25 aldiz jaso.
- Giza proba 400 kiloko harriarekin. Bi plaza.
- -Aizkoran hiru kanaerdiko enbor ebaki.
- 50 kiloko bi txingarekin sei plaza.
- Lasterka hiru kilometro, plazari bueltaka.

Finalaurrean bezala, lagun-koadrila eta beste zenbait jarraitzaile gertu izango ditu harmailetan. Animoak jasoko ditu, nahiz eta larunbat gauerako eguraldi kaskarra iragarrita egon.

"ERRESPETUA ERAGITEN DIT FINALAK, PROBAK LUZATU ETA GOGORTU EGIN DITUZTELAKO"

BURUZ BURUKO ERREMONTA TXAPELKETA KUTXABANK SARI NAGUSIA 2020

FINALA, IRAILAREN 26-AN

16:15-etan

1. PARTIDA / 15:15-etan

ETXARRI LABAKA

VS

URRUTIA II ZUBIRI



URRUTIA

VS



URRUTIA

3. PARTIDA / 17:30-etan

JUANENER BARRENETXER IV

VS

GOIKOETXER V ANSA II LARRAÑAGA



Pelotadenda.com





Urriaren 3an izango da ekimena. SARE

Izan Bidea ekimena mendiz mendi zabaltzeko deia

Urriaren 3an 650 mendi tontorrera igotzeko asmoa agertu du Sare ekimenak

Sare
KOMUNITATEA

Izan Bidea ekimenak euskal presoen eta iheslarien etxeratzearen alde, baita elkarbizitza eta bakearen alde gauden herritarrek batu asmoa dituzte, urratsak emanez, bidea izan gaitezen. Gizarte aktibazioa eta instituzioekiko lanketa uztartuz, auzi honi behin betiko aterabidea eman nahi diogulako.

Horretarako une aproposa dela uste dugu; euskal jendartearen eta instituzioen adostasuna dugu preso eta iheslariak pairatzen duten salbuespen legediarekin amaitu eta etxerako prozesua martxan jartzeko. Denok ozen esan dugu, Euskal Presoak Euskal Herriratzeko garaia dela. Bidea egiten jarraitu behar dugu. Eta bide hori batera egiteko, datorren urriaren 3an inoizko erronka handiena ezarri diogure buruari. Guztion artean, egun berean, Euskal Herriko 650 mendi igo eta tontorretara gure aldarria eramatea. Ekimen eder eta esanguratsua egitea da gure asmoa, argi erakusteko urratsak emateko prest gaudela, maldan gora edo behera, baina guztiok batera, egoera honekin behin betiko amaitzeko. Datozen egunetan xehetasun gehiago eskainiko ditugu.

HITZORDUAK

UDAN ZEHAR EKITALDIAK AIURRI.ESU GUNEAN ZABALDUKO DIRA. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 24

ANDOAIN Jabekuntza Eskola

Sendabelarren gaineko ikastaro aurreratua, Kris Lizarragaren eskutik. Iazko edizioan parte hartu zutenentzat egokia. Informazio osoa Urigainen. Bi talde antolatuko dituzte, irailean eta urriaren zehar ikasteko. Talde bat asteartearrekin elkartuko da, eta bestea ostegunarekin.

18:00-20:00. Irailaren 24tik aurrera.

OSTIRALA 25

ESKUALDEA Euskara

AEK euskaltegiak Andoain aldean eta Hernanialdean euskara ikasteko eta hobetzeko ikastaro sorta antolatu du. Maila guztiak, aurrez aurreko eta on line bidez.

Azken eguna: Irailak 25.

LARUNBATA 26

ANDOAIN Dokumentala

"Irunberri" dokumentalaren emanaldia. Ondoren Ixar Lizarralde Jon Lizarralde "Tripax"en arrebarekin solasaldia.

12:00 Gaztetxea.



Tonbolero familia baten gorabeherak irudikatu ditu Hika konpainiak. HIKA

ANDOAIN Tonbola ikuskizuna Kale Giroan zikloari amaiera emateko

Andoaingo Udalak, Kale Giroan zikloaren baitan, azken emanaldia antolatuko du Ondarreta ikastetxean. Hika konpainiak Tonbola ikuskizuna eskainiko du.

Helduentzako da hitzik gabeko antzerki emanaldia. Gonbidapena behar da.

Irailak 26, larunbata. 19:30, Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalia.

ASTEARTEA 29

ANDOAIN Hitzaldia

"Nola aurreikusitu eta tratatu daitezke Alzheimerren gaixotasuna". Gizarte Zerbitzuak sailak antolatuta.


18:00 Bastero. Gonbidapenarekin.

LARUNBATA 3

ANDOAIN Ekitaldia

Ortzaikako karobiaren piztuera eta omenaldi ekitaldia, Burdina taldearen eskutik.

19:30 Ortzaika.



Doktor Huitzi inguruak. ANDOAINPASEANDO

Koloreak, egutegian parte hartzeko gaia

Andoaingo Udalak 2021eko egutegia osatzeko lehiaketa iragarri du

Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko urtetan bezala, Andoaingo Udalak 2021. egutegia "herritarren partaidetzarekin osatu nahi du, lehiaketa bidez aukeratuak diren 12 argazkiekin". Lehiatzeak saria ekarriko du, gainera. Hilabete bakoitzeko argazkiagatik 100 euroko saria banatuko da.

Gaiari dagokionez, "Andoaingo koloreak" izango da laugarren edizio honetarako aukeratu dena. Argazkiak argitaratugabea izan behar du, eta egile bakoitzak gehienez ere 5 argazki aurkez ditzake. Parte hartzeko gutxieneko adina 16 urtekoa da.

Egutegia herri osoan banatzen da, paperezko edizio zaindian. Hori dela eta lehiaketara aurkeztutako argazkiak bereizmen handikoa izan behar du. Formatuari dagokionez, horizontala eta 2-10 mega artekoa (4350x2900 pikelekoa, 300 ppp-koa, RGBn eta JPG formatuan).

Urriaren 1etik aurrera aurkeztu behar dira argazkiak, Andoain.eus webgunearen bitartez.

Sarrituen berri azaroaren 15ean emango duela iragarri du Udalak.

Oinarriak eta parte hartzeko informazioa www.andoain.eus webgunean aurki daitezke.

Andoaingo Emakumeentzako Jabekuntza Eskola

UDAZKENEKO IKASTAROAK 2020

Batukada feminista

- Astelehenak. Urriak 19; azaroak 2, 16, 30; abenduak 14. 19:00-21:00 Botapa Batukada Elkarteak.

Nola kudeatu egoera indartsu mantenduz?

- Asteazkenak, urriak 7, 14, 21, 28. 10:00-12:00 edo 18:00-20:00 Nerea Redondo Olamendi.

Mindfulness

- Astelehenak. Urriak 19, 26; azaroak 2, 9, 16, 23, 30. 17:00-19:00. Clara Wolfram.

Irakurbide feministak

- Urriak 20; azaroak 17; abenduak 22. 18:30-20:30. Iratxe Retolaza



ANDOAINGO UDALA



"Erosi Urnietan" bono bidezko kanpaina abiatu du Udalak

Aste honetan hasita, bonoak eskuratzeko prozedura abiatu da. 56 merkatalgunetarako baliagarria da

Erredakzioa URNIETA

Udazkenean sartzearekin batera, urnietarrek herriko dendetan kontsumitzeko aukera aproposa izango dute. Udalak aste honetan bertan erosketa bonoak atera ditu, zeinaren bidez 20 euroko ordainketarekin 30 euro gastatu ahal izango diren. Horretarako datozen egunetan 5 eta 10 euroko balioa duten erosketa bonoak lortu behar dira. Bake epaitegian eta Saroben lortu ahal izango dira, baina eskuratu aurretik hitzordua hartu behar da. Hiru bide jarri ditu Udalak martxan: Urnieta.eus webgunea, Urnieta APP aplikazioa eta 688 720 742 telefono zenbakia. Pilaketak saihesteko hitzordua lortu behar da, eta ondoren eskuratu ahal daitezke erosketa bonoak.

56 saltoki ezberdin, denera

Udalak zabaldu duen afitxaren arabera, bonoaz baliatzeko 56 negozio eta merkatalgune daude aukeran. Dendak, tabernak, jatetxeak eta bestelako zerbitzuak: akademiak, burdindegia, elektrizitate-denda eta abar.

Aste honetan hasita, pertsona bakoitzak 2 bono-sorta eros ditzake. Modu horretan, 40 euro ordaintzen duenak 60 euroko gastua egin ahal izango du.

Kanpaina urnietarrei begira dago. Urnietan erroldatuta egon behar da, eta adin nagusikoa izan. Erosten duen pertsona horrek bere etxeko senide baten



Hitzordua lotu eta gero, bonoak Bake epaitegian edo Saroben eskura daitezke. UDALA

bonoa eskuratzeko aukera izango du, baldin eta senide horren baimen idatzia aurkezten badu. Ordezkapen idatzia webgunean aurki daiteke. Erosketa bonoen ordainketa kreditu txartela bidez egin beharko da, nahitaez. Udalak segurtasun neurri gisa defendatu du ordainketa egiteko sistema hori.

Azaroaren 30a bitarte

Urnietako kale eta plaza ezberdinetan aurkitzen diren negozioen atarian kanpainarekin bat egiten duen kartela agertuko da. Horetan egin beharko da erosketa, datorren azaroaren 30a baino lehen. Udalak ohartarazi duenez, bonoak abenduaren 1ean ez dute baliorik izango.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

HAURRENTZAT


"Bihurri"

Larunbata, 26.
17:00.
Igandea, 27
17:00.

HELDUENTZAT

"Tenet"

Larunbata, 26.
19:30, 22:15.
Igandea, 27
19:30.
Astelehena, 28.
19:30, 22:15.
Ikuslearen eguna.



SINOPSISIA



Tenet

Zuzendaria: Christopher Nolan. **Gidoia:** Christopher Nolan. **Aktoreak:** John David Washington, Robert Pattinson, Elizabeth Debicki, Kenneth Branagh, Michael Caine... **Herrialdea:** Britainia Handia (2020). **Generoa:** Espioitza. **Iraupena:** 150 min.

Hitz gakoa, arma bakarra

Filmaren protagonistak hitz bakarra izango du lan tresna modura, munduaren salbazioari eusteko. Nazioarteko espioitzan

barrena murgildu beharko du, eta esperientzia hori denbora sekuentzia linealetik harago joango da.

Denda Berri elkarteak urrirako ekitaldi sorta antolatu du

Urriaren 5etik 9ra ekitaldi ezberdinak antolatu dituzte. Karta-jokoetarako bete beharreko protokoloa ezarri dute

Erredakzioa URNIETA

Adineko askoren aisialdia betetzen du Denda Berri elkarteak. Koronabirusaren eraginez jarduera eten egin behar izan bazuten ere, urrian hasita ekitaldiak antolatzen hasiko dira.

Urriak 5, astelehena

16:00-17:30 Sevillanak, dantza saioa.

Urriak 6, asteartea

Euskara ikastaroa. Orduetgia zehazteko dago.

Urriak 7, asteazkena

16:00-17:30 Lehen txandako Memoria.

17:30-19:00 Bigarren txandako Memoria.

Urriak 8, osteguna

09:30 Bide osasungarriak.




Denda Berri elkarteak. UDALA

Urriak 9, ostirala

17:30-18:30 Zumba saioa.


Bestalde, karta-jokoetarako protokolo zorrotza bete beharko dela ohartarazi dute.

ZORION AGURRAK



URNIETA

Lizar
Zorionak Lizar!
Irailaren 9an 4 urte bete dituzu!!!
Zorionak eta muxuak etxeko guztien partetik!



ANDOAIN

Aratz Korta
Zorionak Aratz!!
Irailaren 27an, 3 urte bete zenituen!
Muxu potoloak zure etxekoan partez!

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 26 eta igandea 27
DIAZ: Kale Nagusia, 19.
943 59 20 57. Andoain.

URNIETA

Larunbata 26 eta igandea 27
TANCO: Idiazabal, 39.
943 550 942. Urnieta.

Euskara zerbitzuaren bulegoak lekuz aldatu dira

Udaletxeko goiko solairutik Urigain kultur etxeko lehenengo solairura igaro dira, bertako langileak

Erredakzioa ANDOAIN

Udal Euskara Zerbitzuaren bulegoak lekuz aldatu dira. Orain arte Udaletxeko goiko solairuan zituen bulegoak Euskara Zerbitzuak. Orain, ordea, Urigain kultur etxeko lehenengo solairuan kokatzen dira. Bertako bi bulegotan kontzentratu dira Euskara Zerbitzuko lankide guztiak.

Hemendik aurrera, beraz, Euskara Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko Urigaingo Kultur Etxera joan beharko da. Bertan izango dira Euskara Zerbitzuko langileak zein Euskara arloko zinegotzi arduraduna, Mikel Arregi, Udaleko euskara arloko edozein kudeaketarako argibideak eta laguntza emateko prest.

- Arretarako ordutegia: 8:30etik 13:30era.
- Telefonoa: 943 300 831.
- Emaila: euskarazerbitzua@andoain.eus.

Ibilbide gidatua, partaideen ahotan

Eguraldia lagun, Europako Ondarearen Jardunaldien bisitaldi gidatua bikain irten zen. Izaskun Iztueta, Marixabel Ormazabal eta Eduardo Audikana partaideak oso gustura egon ziren Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatu zuen ekitaldian

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Eduardo Audikanarentzat “igandeko esperientzia bi hitzetan laburbildu daiteke: Interesgarria ta dibertigarria. Interesgarria, guduaz gain, garai hartako egoera politiko, sozial eta erlijiosoari buruzko gauza berriak ikasi genituelako. Dibertigarria, hizlaria aditua zelako, eta historia-rekiko duen ilusio hori gure egitea lortu zuelako. Anekdotak bitxiak kontatu zituen, gainera”.

Izaskun Iztuetak edizio guztietan parte hartu du: “Aita Larramendi eta Agustin Leitzari buruzko lehen irteera hartan izan nintzen, eta hain interesgarria iruditu zitzaidan geroztik irteera guztietara animatu naitela. Oporretan, maiz, hango eta hemengo eliza, museo eta tokietara abiatzen gara eta, aldiz, gure herria ez dugu gehiegi ezagutzen. Jakinmina izan dut betidanik, eta horrelakoetan parte hartzeak ilusio handia egiten dit”.



Ibilbide gidatuaren hiru taldetxoetako bat Kale Nagusian, Zubiaurre parean. BAZKUNA


Marixabel Ormazabalentzat ere ez zen lehenengo aldia: “Espero nuen gustukoa izango zela. Izan ere, lehendik Andoaingo dorretxeen ibilbidean parte hartu genuen, baita Andoaingo hainbat emakumeri eskainitakoan

ere. Gauza batzuk jakinak dira, baina ondo dator pasarte haiek tarteka gogora ekartzea”. Ormazabalek ondo ezagutzen du gertaera hura, 2013an Andoaingo Guduaren lehen antzezpenean parte hartu zuelako.

Bisitaldi gidatuan parte hartu eta gero, bestelako begiekin ikusi ohi da egunerokoa dugun paisaia. Audikana bat dator ideia horretan: “Aurrerantzean, Kale Nagusiko kale estuetatik edo Leizaur zubitik igarotzean, Andoaingo Guduan ia 800 hildako izan zirela jabetu eta zeinen krudela izan zen jakiteko baliagarria izango zaigu. Bestalde, gutako askok ezagutzen ez genuen Juan Bautista Erro pertsonaia politikoko garrantzitsua ezagutzeko baliagarria da bisitaldi gidatuetan parte hartzea. Edo Arrate edota Iriarte etxeen toponimiaren zergatia”.

Iztuetak horrelakoetan egindako deskubrimenduak nabarmendu nahi ditu: “Ez diogu gehiegi erreparatzen inguruari. Karmentxoenea ezagutzeko aukera izan genuen, behin. Etxe arrunta zela uste nuen, baina oso etxe berezia da barrutik”.


Soldaduak Juanita Alkain plazan Ibilaldiko sorpresatxoia izan zen. Audikanarentzat, “soldaduen agerpena oso interesgarria iruditu zitzaidan. Hiru soldadu ikusteko aukera izan genuen, bata karlista eta biak liberalak. Horietako bat txapelgorria eta bestea britaniar soldadua. Jantzkeran antzeman genuen karlistek abantaila izan zutela. Euren jantzera arinagoa zen, eta abarkak erabiltzen zituzte. Liberalek, aldiz, erraz apurtzen diren botak zituzten”.



Partaideek ezusteko bisitariak izan zituzten ibilbidean zehar. Andoaingo Guduaren garaiko jantziekin agertu zitaizkien hiru soldadu. BAZKUNA

Ormazabalentzat igandeko esperientzia kulturaren sakontzeko aukera baliagarria da: “Goiza lagunartean igarotzeko modu berezia da, eta gainera herriatik atera gabe”. Igandekoa eta gero, errepikatzeko gogoz dago. Audikanak antzekoa adierazi du, beste argudio bat erantsiz: “Ibilbide gidatuan parte hartzea herriko jende gehiagorekin sozializatzeko beste modu bat da”. Iztueta datorren urterako zain dago, jada: “Izena emateko Aiurrin albistea argitaratzeko zain izaten naiz”.

Konturatu orduko bertan izango da edizio berria. Herriko historian sakontzeko aukera berria, Larramendi Bazkunaren eskutik eta Andoaingo Udalaren laguntzaz.



LEKUKOTZAK
Andoaingo gudua

ANDOAINGO GUDUA

1837ko irailaren 8tik 16ra bitartean Andoainen eta aldirietan gertaturiko hainbat pasarte liburuxka batean bildu ditu Larramendi Bazkunak.

Argitaratzaile: BAZKUNA
Laguntzaile: ANDOAINGO USABE

Laster kiroskoetan eskuragarri